



4. AGIRIA

FOTOKOPIAGAILUETARAKO ETA PLANOAK KOPIATZEKO MAKINETARAKO KOPIAK EGITEKO PAPER HORNITZEKO KONTRATUAREN PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. XEDEA

Agiri honen xedea Partzuergoak beharko duen fotokopiagailuetarako eta planoak kopiatzeko makinetarako kopiak egiteko materiala hornitzeko baldintza teknikoak finkatzea da.

2. HORNIDURAREN BALDINTZA OROKORRAK

Lehiakideek agiri bidez justifikatu beharko dute erreferentziako zerbitzuak egiteko baldintzak betetzen dituztela.

Materialen hornidura honen barruan Partzuergoaren instalazioetan entregatzea sartzen da, ondoren adierazten diren puntu zehatzetan (biltegia, bulegoa, eraikina edo solairua) alegia:

Bilbon

Erreprografia-gela*

San Bizente kalea, 8, Albia I Eraikina, 1. solairua , Bilbo 48001; entrega Albia 1 eraikineko 1. solairuan dagoen erreprografia-gelan egin behar da.

Bezeroekiko Harremanetarako bulegoa*

San Bizente kalea, 8, Albia I Eraikina, sarrerako atondoa, Bilbo 48001; entrega Albia 1 eraikineko atondoan dauden bulegoen barruan egin behar da, biltegian alegia.

Zuzendaritza teknikoa/Kontratazioa/Gerentzia*

San Bizente kalea, 8, Albia I Eraikina, 4. solairua, Bilbo 48001; entrega Albia 1 eraikineko 4. solairuan dituzten bulegoetan egin behar da.

** Merkantziekin eraikina eta bulegoetara sartzeko Isleta kalean dagoen karga-jasogailuaren bidez.*

Udal Sareen zuzendariordetza

Uribitarte kalea, 8, 1. solairua, Bilbo 48001; entrega adierazitako solairuan duten biltegian egingo da.

Lurzoruaren Kudeaketa eta Diruzaintza

Uribitarte kalea, 8, 2. solairua, Bilbo 48001; entrega adierazitako solairuan duten biltegian egingo da.

Informatika zuzendariordetza



Uribitarte kalea, 8, 3. solairua, Bilbo, 48001; entrega adierazitako solairuan duten biltegian egingo da.

Beteluriko Edateko Uraren Tratamendutegian, bulego guztiak edateko uren araztegiaren barruan daude.

Kontrol-eraikina

Beteluriko Edateko Uraren Tratamendutegia, Arrigorriaga, Buia-Arrigorriaga errepidea z.g., 48480 Arrigorriaga; entrega kontrol-eraikinean dagoen biltegian egin behar da.

Hornidura-laborategia

Beteluriko Edateko Uraren Tratamendutegia, Arrigorriaga, Buia-Arrigorriaga errepidea z.g., 48480 Arrigorriaga; entrega laborategian dagoen biltegian egin behar da.

Ustiapen-bulegoak

Hornikuntza-ustiapen eraikina, 1. solairua.

Beteluriko Edateko Uraren Tratamendutegia, Arrigorriaga, Buia-Arrigorriaga errepidea z.g., 48480 Arrigorriaga; entrega ustiapen-eraikinean dagoen biltegian egin behar da.

Prebentzio Departamentua.

Hornikuntza-ustiapen eraikina.

Beteluriko Edateko Uraren Tratamendutegia, Arrigorriaga, Buia-Arrigorriaga errepidea z.g., 48480 Arrigorriaga; entrega Prebentzio Departamentuko biltegian egin behar da.

Galindo HUAn, bulego guztiak araztegiaren bertan daude.

Kontrol-eraikina/Laborategia

Galindoko hondakin-uren araztegia, Maestro José kalea, z/g., 48910 Sestao; entrega Kontrol-eraikineko biltegian egingo da, beheko solairuan eta 1. solairuan.

Industria-eraikina, 3. solairua.

Galindoko hondakin-uren araztegia, Maestro José kalea, z/g., 48910 Sestao; entrega industria-eraikineko biltegian egingo da, 3. solairuan.

Barakaldon

Bezeroekiko Harremanetarako bulegoa.

Florida kalea, 12. 48902, Barakaldo; entrega euren biltegian egingo da, kalean bertan dagoen bulegoan.

Gernikan

Bezeroekiko Harremanetarako bulegoa.

Bekoibarra kalea 13, 1. solairua, Gernika, 48300; entrega euren biltegian egingo da, 1. solairuko bulegoan.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, kontratuak irauten duen bitartean, entrega-puntu berriak sartu ahal izango ditu aurrean deskribatu diren instalazio edo helbide horietan.

Entregatuko diren kopuruak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak erabakiko ditu, eta entregatzeko eskaera bakoitzean honako hauek adieraziko ditu: pakete-kopurua, produktu-mota, entrega-puntua eta nori entregatu behar zaion. Partzuergo honek beretzat gordetzen du, kontrapartidarik gabe, zehaztapenak betetzen ez dituzten partidak itzultzeko eskubidea.



Agiri honetan zehaztutako materialak gehienez ere 48 orduko epean entregatuko dira, eskatzen direnetik zenbatzen hasita.

3. ESKAINI BEHARREKO HORNIDUREN EZAUGARRIAK

Hornitu beharreko materialen ezaugarriak honako hauek dira:

1. Plotter-papera

- Cad Ink-Jet plotter opakuaren papera izango da, 0,914 x 50 m-koa eta >100 g/m²-koa.
- Plotter kolorerako, HP DesignJet 3200 edo antzekoak.

Honela aurkeztu beharko da:

- Kartoizko enbalajearen bidez.
- Paper-biribilkia bilgarri iragazgaitzarekin.

2. "REPRO" papera Z/B fotokopiagailurako (A mota)

- Gramajea (ISO 536): 75 eta 80 g./m².
- Lodiera: (ISO 534): 80-110 mikrons.
- Zuritasuna (ISO 11475): 160 - 168 CIE
- Opakutasuna: % 90etik % 95era.
- Leuntasuna-satinatua: 100-150 Berkhn (n/min).
- Hezetasun-gradua: % 3,5 - % 4,5.
- Paperaren mozketak: zuntzaren noranzkoan.
- Ez da paper birziklaturik onartzen.
- Ineo 654, Ricoh 6500PS, Ricoh 8003, etab. kopiagailuak.

Honela aurkeztu beharko da:

- Kartoizko enbalajearen bidez, pakete-multzo bakoitzerako.
- 250 edo 500 orriko paketeetan.
- Makulatura iragazgaitza duen bilgarrian, barruan inguruan polietilenoazko xafla bat jarrita hezetasunetik babesteko.
- Lau aldeetatik egoki moztuta.

3. "REPRO" papera koloretako fotokopiagailurako (B mota)

- Gramajea (ISO 536): 80, 90 eta 100 g./m².
- Lodiera (ISO 534): 100-110 Microns.



- Zuritasuna (ISO 11475): 160 - 168 CIE.
- Opakutasuna: % 90etik % 95era.
- Leuntasuna-satinatua: 100-150 Berkhn (n/min).
- Hezetasun-gradua: % 3,5 - % 4,5.
- Paperaren mozketa: zuntzaren noranzkoan.
- Ez da paper birziklaturik onartzen.
- Koloretako kopiagailuak, bereziki Xerox 2230, NGR DSC32, Ineo 654, Ricoch 6500PS, Ricoch 8003, etab.

Honela aurkeztu beharko da:

- Kartoizko enbalajearen bidez, pakete-multzo bakoitzerako.
- 250 edo 500 orriko paketeetan.
- Makulatura iragazgaitza duen bilgarrian, barruan inguruan polietilenoazko xafla bat jarrita hezetasunetik babesteko.
- Lau aldeetatik egoki moztuta.

4. Fotokopiagailuetarako paper birziklatua (C mota):

- Gramajea (ISO 536): 80 g./m².
- Zuritasuna (ISO 11475): 90 - 168 CIE.
- Opakutasuna: % 80tik % 95era
- Leuntasuna-satinatua: 100-150 Berkhn (n/min).
- Porositatea: 330 ml/min.
- Xerox 2230, Nashuatec 8505, D445, dsc32, Lanier Id65, Id55, etab. kopiagailuak.

Honela aurkeztu beharko da:

- Kartoizko enbalajearen bidez, pakete-multzo bakoitzerako.
- 250 edo 500 orriko paketeetan.
- Makulatura iragazgaitza duen bilgarrian, barruan inguruan polietilenoazko xafla bat jarrita hezetasunetik babesteko.
- Lau aldeetatik egoki moztuta.

Bilbo, 2026ko apirilaren 14a

Erakunde Harremanen eta Komunikazioaren arduraduna
Janire Bijueska Bedialauneta